

hiruka

189. zenbakia
2022ko azaroa

EUSKARALDIA 2022

«Hitzez ekiteko garaia»

AZAROA-ABENDUA

MUSIKA



ITXASO
GAZTELUGATXE

AZAROAK 26 OSTIRALA 21:00 / 8€

MUSIKA



ANJE DUHALDE

ABENDUAK 03 LARUNBATA 20:00 / 6€

ANTZERKIA



FAMILIA SAREKADA
VAIVÉN EKOIZPENAK

ABENDUAK 10 LARUNBATA 20:00 / 10€

MUSIKA



BARNE-BARNETIK
FESTIBALA

18 PUNK-OII ETA HARDCORE-ROCK BANDA

ABENDUAK 16-17 17:00-01:00 / 8€ (abonua 12€)



94 466 01 23
kulturetxeo@getxo.eus
www.getxo.eus



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Euskararen kale neurketa Uribe Kostan
- 12 Faceguk: Parte hartuko duzu Euskaraldian?
- 14 Agenda
- 16 Iritziak eta Irakurrian
- 18 Kike Amonarriz, Topaguneko lehendakariagaz berbetan
- 22 Usategi
- 24 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 27 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Paul Bilbao, Naroa Jauregizuria, Iratxe Marta, Aritz Landeta eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Euskararen Egunaz

PAUL BILBAO SARRIA Kontseiluko idazkari nagusia



Euskararen Nazioarteko Eguna ulertzeko modu asko dago. Badira adierazpen instituzionalak egiteko baliatzen dituztenak, eta, ongi dago, bai, gure hizkuntzak beharrezkoa duelako botere instituzionalen aitortza. Horrekin batera, eguna baliatu egiten da haur eta gaztetxoekin hainbat ekimen egiteko ikastetxeetan. Egun horren bueltan, euskara balio positiboekin lotzeko jarduerak antolatzen dira, kantuak, dantzak... Eta, bai, euskarak ere halakoak behar ditu. Bestalde, hainbat euskaltzaleri aitortza egiten zaio garai horretan, tartean, gure herriko Argia Ereiten Sariaren bidez. Hori ere, beharrezkoa, noski.

Halere, niretzat, Euskararen Eguna hizkuntza-eskubideen eguna ere bada. Izan ere, euskara hizkuntza normalizatua ez den heinean, bizi dugun egoera lazgarria hedatzeko ere baliatu behar da. Egun, oraindik, Euskal Herrian ez dago euskaraz bizitzerik. Are gehiago, gure herriaren eremu batzuetan euskaraz bizitzeko eskubidea ere ez digu aitortzen indarrean dagoen legeak, edo berriki ikusi bezala, epaileek erabakitzen dute zein izen jarri gure seme-alabei... Eta horri guztiari aurre egin dion eta, beraz, euskararen garra itzaltzen utzi ez duen komunitate sendoa dagoela erakusteko eguna ere bada abenduaren 3a.

Hala ere parte hartuko dut

NAROA JAUREGIZURIA Soziolinguista



Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik», ez dakit zenbatetan irakurri dudana: ikastolan, tabernetan, gaztetxeetan, Instagramen, WhatsAppean... Zama eta errua agertzen zait horretan pentsatzen dudana bakoitzean. Bere garaian izan zezakeen balioa kendu barik, testuingurutik aterata eta urteetako bazterkeria eta gutxiespenaren ostean «hemen euskararik hitz egiten ez duenak ez duelako nahi da» baieztapenean transformatu eta jendartearen hizkuntza ideologian iltzatu da.

Euskaraldia aipatu egoeran sortu eta garatu da, eta ardura eta erruaren mamuak sartu-irtenak egiten ditu ekimen honetan ere. Ardura eta errua sartzen dira ezagutza bermatuta ez dagoenean, euskaldunon hizkuntza eskubideak hutsaren hurrengo direnean edo euskal erreferenteak eta kultura desagerrarazten, infantilizatzen edo karikaturizatzen direnean; erabakia eta hautua gurea dela esaten zaigunean. Alta, errua eta autofustigazioaren gainera mamua murrizteko aukera ere emango digu Euskaraldia: euskaldunok ikusgarri egiteko, gune seguruak sortzeko, komunitatea indartzeko, elkar zaintzeko, aliantzak eraikitzeko eta ahalduntzeko. Horregatik, hala ere, Euskaraldian parte hartuko dut.

Puntua eta kontrapuntua **Euskaraldia**

Euskarari eman plazak



*Eman nahi genioke
euskarari plaza
eta hemen berezko
ez duen arnasa.
Ariketak sortzen dit
sentimendu jasa;
nahiz jakin banaizela
finean kapaza,
niri ez zait egiten
hain gauza erraza.*

**BEÑAT
VIDAL
GURRUTXAGA**
Getxo

*Gauza zailenak ere
badaukate muga:
hainbat helburu handi
ekinez lortu da!
Ulertzekoa, baina,
egitea duda;
indartzeko, beste hau
datorkit burura:
geuk egin ezik, Beñat,
nork egingo du, ba?*

**JOSEBA
SANTXO
URIARTE**
Getxo



Oleg Kulyk Getxon bizi den errusiar-ukrainar euskalduna

«Euskara ez da zaila; behar dena denbora da»

Ukrainan hazi baina Moskun bizi izan denak Errusiako hiriburuan hasi zen euskara ikasten, orain dela 12 urte. Gaur egun, Algortan bizi da, eta berbalaguna da.

TESTUA: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

HIRUKAko aldizkariaren azken zenbakia esku-artean, Algortako erdiguneko taberna batean topatu dugu Oleg Kulyk. Gaztelaniazko hamaika ahotsen artean, euskara hutsean hartu gaitu Jekaterinburg-n (Errusia) jaio, Dnipro (Ukraina) hirian koskortu eta oraintsu arte Moskun bizi izandakoak. Dioenez, orain 12 urte hasi zen euskara ikasten Errusiako hiriburuan, hango Cervantes Institutuan. Izan ere, azaltzen duenez, 16 urte daroatza Euskal Herriko enpresa batean lanean, Sobietar Batasuneko kide izandako herrialdeetan ordezkari gisa, eta euskarak interesa piztu zion, «ez zaidalako gustatzen gauzaren bat ez ulertzea». Horregaz batera, «ehunaka» alditan etorri da gurera, lanagatik eta aisialdiagatik, Ukrainako

gerraren eraginez martxoan Algortara bizitzera etorri zen arte: «Moskun bizitzea zaila egiten ari zitzaidan».

Kulyk-ek lagun asko ditu hemen, eta horiekaz guztiakaz, ahal den neurrian, euskaraz egiten saiatzen da, «euskaldunak direnekin, noski». Euskara irakurri eta kontsumitzen du, halere, aitortzen du batzuetan zaila egiten zaiola horretan aritzea, ez dakielako aurrean duenak euskara dakien ala ez: «Taberna honetan, adibidez, euskaraz eska daiteke?», galdetzen du.

Aitortzen duenez, ez zaio zaila egin euskara ikastea, baina aitortzen du denbora falta dela horretarako zailtasunik handiena. «Gaur egun, denbora gutxi daukat ikasten jarraitzeko; denbora izango banu, gehiago ikasiko nuke». Dena dela, duen apurra mintzapraktikan trebatzeko inbertitzen du. Izan ere, eguaztenaro Areetan batzen da Berbalagunen egitasmoko bere taldetxoagaz. «Niretzat interesgarria da posible delako euskaraz aritzeko. Beste hainbatetan ere saiatzen naiz, baina jende askok normalean ez du egiten, ez dakitelako euskaraz. Ez dakit nork dakien euskara». Ea Euskaraldiagaz ikusgarritasun hori lortzen den. ◀

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

hiruka

HARTU
BOLADA ONA
GUGAZ.
EMAIOZU BULTZADA
ZURE
NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitetz gugaz harremanetan:

944 911 337 / 488 811 368 • publi@hiruka.eus



Euskararen kale erabilera hauspotzeko bidea egiteke dago oraindino gurean

LEIOAN ere...

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Eta zu, belarriprest edo ahobizi izango zara?



Leioa
UDALA-AJUNTAMIENTO

Euskaraldiagaz batera, euskara kalera, plazara eta denon ahotara ateratzeko saiakera egingo dute Uribe Kostako euskaltzaleek 15 egunez azaroaren 18tik aurrera. Hori dela eta, aukera aprobetxatu gura izan dugu joan den maiatzean Soziolinguistika Klusterrak 2021ean Euskal Herrian egin zuen hizkuntzen erabileraren kale neurketaren emaitzak gogorarazteko.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK ETA GRAFIKOAK: **HODEI TORRES · IKER RINCON MORENO ►**

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean, milaka euskaltzalek, aho-bizi edo belarriprest rolak hartuta, ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diote Euskaraldiaren ariketari, kalean euskaraz berba egitea inoiz baino errazago izan dadin. Asmoa da gure hizkuntzaren erabilera areagotzea, leku guztietan, baina ez 15 egunez bakarrik, baizik eta euskararen erabilera-ohiturak irautila luzarora mantentzea. Baina, zer-zelakoa da gaur gaurkoz euskararen kale erabilera Euskal Herrian? Eta gurean?

Iaz, 2021ean, Soziolinguistika Klusterrak egindako azken ikerketaren arabera, zortzi lagunetatik bat –edo herritarren % 12,6a– euskaraz aritzen zen Euskal Herriko kaleetan. Gurean, aldiz, emaitzak bestelakoak izan dira, uribekostarren % 3,6 eta % 13,1 aritzen baitzen euskaraz, gunearen arabera. Azter-

lana eskualdez eskualde egin dute, eta Uribe Kostako udalerriak bi eremutan banatu dituzte: Bilbo Handian (Erandio, Leioa eta Getxo) eta Plentzia-Mungian (Sopela, Barrika, Urduiz, Plentzia, Gorliz eta Lemoiz –Berangon ez dute neurketarik egin–). Hala, lehenengo eremuan, euskararen erabilera askoz txikiagoa zen bitartean (% 3,6), bigarrenen batez beste-koaren gainetik zegoen puntu erdiz (% 13,1).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN AZTERKETA. 1989az geroztik, Euskal Herrian egiten den zortzigarren hizkuntzen erabilaren kale neurketaren emaitzak dira horiek. 7.637 orduraz egindako behaketa zuzenaren bidez, 215.396 elkarrizketa eta 603.497 solaskide behatu zituzten lagintzat hartutako 145 udalerrietan, tartean, eskualdeko bederatzitan.

Soziolinguistika Klusterrak ondorioztatu duenez, azken bost urteetan ez da gorabeherarik egon euskararen kale erabilaren orokorrean: «Euskal Herriko kaleetan behatutako zortzi pertsonatik bat ari zen euskaraz (% 12,6). Datu orokor hau 2016ko hizkuntzen erabilaren kale neurketan behatutakoaren berdina da». 2006an neurtu zuten baliorik altuena (% 13,7), eta hurrengo hamarkadan behariko joera izan ostean, azken bosturtekoan balioa mantendu da; halere, duela 33 urtetik hona, 1,8 puntuan hazi da erabilera.

Datu orokorretik harago, egoera ezberdina da eremu geografikoei erreparatuz gero. Gipuzkoa da euskara gehien entzuten den eremua (% 30,6), azken hamarkadan erabilerak bi puntu behera egin duen arren; behera egin dute balioak Nafarroan (% 5,9) eta Ipar Euskal Herrian (% 4,9) ere. Aldiz, duela bost urte baino euskara gehiago entzuten da Bizkaiko (% 9,4) eta Arabako (% 4,9) kaleetan. Ildo horretan, ikerlanaren zuzendari Olatz Altunak (Usurbil, 1971) azpimarratzen du Euskal Herria oso heterogeneoa dela lurraldeei eta es-

% 12,6

da 2021ean kalean euskaraz aritzen zen Euskal Herriarren portzentajea.

145


udalerrietan egin du Soziolinguistika Klusterrak behaketa, tartean, Uribe Kostako bederatzitan.

kualdeei dagokienez, «eta, ondorioz, erabilera maila oso ezberdinak ditugu. Eskualde batzuetan erabilera oso urria da, eta horrek erakusten du oraindik ere oso zaurgarria dela euskara». Uribe Kosta horren adibide garbia da; halere, Altunak azaldu du ezinezkoa dela gure eskualdeko herriz herriko datu zehatzak ematea, hartutako laginak, orokorrean, oso txikiak direlako emaitza adierazgarriak emateko. Erandion eta Getxon, berriz, azterketa sakona egin dute, eta, lehenengoaren kasuan, emaitzen berri emango dute azaroaren 17an; Getxon, aldiz, «Udalaren esku daude datuak, baina, momentuz, ez dute aurkezpenik aurreikusiko».

Kontuak horrela, herriz herrikako datuen faltan, esan daiteke, orokorrean, Nerbioi ibaiaren inguruko udalerrietan euskararen erabilera nabarmen baxuagoa dela Plentzia-Mungia inguruko udalerriekikoakaz alderatuta. Halere, lehenengoaren kasuan azken bost urteetan euskaraz aritzeko joera handitu den bitartean, bigarrenen kasuan erabiltzaileak galdu dira urtez urte.

EUSKARAREN ERABILERA ESKUALDEAREN ARABERA HIZKUNTZAREN ERABILERAREN KALE NEURKETA. 2021

■ 2011 ■ 2016 ■ 2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Horren harira, Altunak azaltzen du eremu euskaldunenetan behera egin duela kale erabilerak bost urteotan, eta joera hori ez dela berria, aurreko edizioetan ere gauza bera nabarmendu baitzen.

GORABEHERAK EREMU ETA ADINAREN ARABERA. Bizkaian, urbanistikoki eta demografikoki azken urteotan gehien hazi den eskualdeetako bat da Plentzia-Mungia, eta, horren eraginez, besteak beste, eremu horietako euskaldunen proportzioak behera egin du 10 urtetan, % 17,6tik % 13,1era, hain zuzen ere. «Azken urteetan gertatu diren aldaketa urbanistikoengatik eta demografikoengatik, eremu horietako euskaldunen proportzioak eta kopuruak behera egin dutela ikusi dugu, eta horrek isla izan du euskararen erabileran», azpimarratu du Soziolinguistika Klusterraren ikerketaren arduradunak.

Bilbo Handiko herriguneetan, aldiz, eskal hitzunen proportzioak gora egin du, gutxi bada ere, hein handi batean euskarazko hezkuntza ereduaren hedapenari eta helduen

«Eskolan euskaldundu diren horiek gaztelaniaz hitz egiteko euskaraz aritzeko baino erraztasun dezente handiagoa dute, eta gauza jakina da erraztasun handiena duzun hizkuntzara jotzea dela ohikoa»

OLATZ ALTUNA
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA


euskalduntzeari esker; «alegia, euskaltegien lanari esker», Altunaren esanetan; «hala ere, eskolan euskaldundu diren horiek gaztelaniaz hitz egiteko euskaraz aritzeko baino erraztasun dezente handiagoa dute, eta gauza jakina da erraztasun handiena duzun hizkuntzara jotzea dela ohikoa».

Adin-tarteei dagokionez, gurean, gazteenak dira euskaraz aritzen diren gehienak, bai Bilbo aldeko udalerrietan zein Plentzia-Mungia inguruan. Lehenengoen kasuan, nabarmen gora egin dute azken bost urteetan 2-14 urte artekoen euskararen erabiltzaileek, duela 10 urteko emaitzak gaitunduta; nagusien kasuan ere, gutxi bada ere, gora egin dute baita ere. Kostaldeko udalerrietan, aldiz, 15-24 urte arteko euskara-erabiltzaileak areagotu egin dira, 2016an ia-ia euskaraz berba egiteari utzi ziotenean; gainontzeko adin-tarteei dagokionez, berriz, euskara gero eta gutxiago entzuten da horien artean.

Adin taldeei dagokionez, Altunak azaltzen du zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gehiago erabiltzen dela euskara kalean

BILBO HANDIA EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA


■ 2-14 urte ■ 15-24 urte ■ 25-64 urte ■ >64 urte



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

PLENTZIA-MUNGIA EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA

■ 2-14 urte ■ 15-24 urte ■ 25-64 urte ■ >64 urte



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

orokorrean. Hala ere, azpimarratzen du adin berekoen arteko elkarrizketen erabilerak behera egiten dutela, «hau da, harreman horizontala, haurra haurarekin, gaztea gaztearekin edo heldua helduarekin ari denean, erabilerak behera egiten du». Aldiz, haurrak elkarrizketa batean egoten direnean, euskararen alde jotzeko joera dagoela nabarmen-tzen du, «eragin positiboa du. Helduen erabilerak gora egiten du haur bat tartean den elkarrizketetan. Lurralde guztietan antze-man dugu joera hori».

Horrez gainera, «generoari dagokionez, belaunaldi gazteenetan emakumeek euskara gizonak baino gehiago erabiltzen dute», nabarmendu du ikertzaileak, tartea oso handia ez den arren. Dena dela, joera hori leku guztietan errepikatzen dela-eta, uste du hor bada-goela zer aztertu: «Generoek sozialki betetzen dituzten rol horiek euskararen erabileran du-ten eragina aztertu beharra dago».

ARNASGUNEEN BEHARRA EUSKARA HAUSPO-TZEKO. Euskararen erabilerari dagokionez, Altunak beste gako batzuk ere aipatzen ditu azterketaren irakurketan, hala nola inguruko

**Euskaldun
proportzioa txikia
denean, euskaldun
dentsitate handiko
«gune erosoak»
sortu behar dira,
eta arnasmuneak
zein Euskaraldiaren
ariguneek hori
ahalbidetzen dute,
besteak beste.**

euskaldunen kopurua. Horren harira, pro-portzioa txikia denean, euskaldun dentsitate handiko «gune erosoak» sortu beharko lira-tekeela uste du euskararen erabilerak nabar-men gora egiteko, «bestela, askok, euskara erabiltzeko aukerarik ere ez dute izango».

Ildo horretan, gurean euskarak kalean protagonismo handirik ez duen arren, badira horren erabilera hauspotzeko hainbat gune, proiektu eta egitasmo, nolabait, gure hizkun-tzaren arnasmune direnak. Horietako asko to-kiko euskara elkarteek bultzatutakoak dira, hala nola Getxoko Bizarra Lepoan, Albe, Sen-di eta Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta Erandioko Berbots, baina baita herriko eus-kaltzaleek sortutakoak, Algortako Azebarri kultur elkarte eta Lemoizko Etzandarri eus-kal mendi taldea, besteak beste. Ikastolek eta ikastetxe publikoek ere bultzada handia ema-ten diote euskarari, baita inguruko udaletako kultur etxeek eta euskara zerbitzuek ere.

Eskualdeko kirol talde askok ere zeregin horretan euren aletxoa jartzen saiatzen dira, hala nola Uribe Kosta Saskibalo Taldea, Ar-mintzako Pilota Elkarte eta Barrikako Fut-bol Eskola, entrenamenduak euskaraz egiteko

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Egitarau osoa

Azaroak 16 Furgoneta ibiltaria

Azaroak 17 Kale erabilera neurketa-datuen aurkezpena

Azaroak 18 Hasiera ekitaldia! Bertsoak, txokolatada, Burrunba elektrotzaranga...

Azaroak 19 Dantzapoteoa Aiko taldearekin

Azaroak 26 Txirri, Mirri eta Txiribiton

Abenduak 2 Amaiera ekitaldia! Zunba, Gauargi erromeria...

ABENDUAK 3, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA!

12:30 Ekitaldi nagusia

19:30 Merkatu zaharrean (doan, aforo mugatua)



Eta beste hainbat sorpesa...

E!
Erandio
UDALA
AYUNTAMIENTO

konpromisoa hartuta dutenak, edota apurka-apurka euren ibilbidean euskara txertatzen saiatzen direnak, barbarako, Urduliz eskubaloi taldea. Horiek guztiek euskaraz aritzeko gune «seguruak» bermatzen dituzte, aurrez aurre duguna gure hizkuntza ulertu eta erabiltzeko prest dagoela ziurtatuta.

Azkenik, euskaltegiek eta hizkuntza eskolek ere, nola ez, ingurua euskalduntzeko berebiziko lana dute, euskara ikasteko hamaika aukera eskaintzen baitituzte.

EUSKARALDIAREN PAPERA. Euskararen erabilera-ohiturak iraultzeko hirugarren saiakera izango da aurtengoa, eta, apurka-apurka bada ere, gure hizkuntzaren erabileran aurrerapausoak ematen hasiak gara. Hala adierazten dute azken ikerketek, denbora bat pasatzen denean Euskaraldian lortutako aldaketa batzuk mantentzen direla frogatuta. Euskaraldia amaitu eta hilabete batzuetara, egoera ekimenaren aurretik baino hobea izan ohi da hainbat lekutan, eta, ondorioz, horrek esan gura du funtzionatzen duela eta erabilera maila bat igozen duela. Oraingo honetan ere hala izango da? Ea hirugarrenean ere asmatzen dugun. ◀



Euskaraldian ahobizi eta belarriprest rolak hartzeko aukera egongo da.

GORLIZ

EUSKARAZ BIZITZEKO ESPAZIOAK SORTZEN!

Euskaraldian parte hartuko duzu?




IZASKUN SANTOS
SOPELA

Oraindik ez dut parte hartu Euskaraldian, nahiz eta ikastolatik ezagutzen dudana. Hala ere, uste dut horrelako ekimenak bultzatu beharko liratekeela hizkuntzari laguntzen diotelako.



MIKEL SAEZ DE LA CUESTA
SOPELA

Aurreko edizioetan apuntatu naute eta txapa ere eraman dut. Batez ere, umeei eskolan egin dutelako ezagutzen dut ekimena, eta uste dut erabilera sustatzeko ondo dagoen ekimena dela eta egiten jarraitu beharko litzatekeela.



NIGEL WAREHAM
SOPELA

Oso ekimen ona iruditzen zait, nik euskara gehiago jakingo banu parte hartuko nuke, baina, ez dakidanez, asko kostatuko litzaidake. Hala ere, uste dut jendea euskara ikastera animatzeko jarduera ona izan daitekeela.



ANE SANTA CRISTINA
ARRASATE

Nik zuzenean ez dut parte hartu, baina nire lagun eta senideek bai. Ekimen interesgarria da, baina erakundeetan edo elkarteetan sartuta ez bazaude ez da hainbeste entzuten, beraz, jendea horretaz gehiago informatu beharko litzateke.



AMINA MOUJAHED CANAL
SOPELA

Askotan entzun dut, baina, egia esan, ez dakit zertan datzan, gainera oso euskara gutxi dakit. Hala ere, euskara bezalako hizkuntza gutxituak indartzeko herritarren artean egiten den edozein ekintza ondo iruditzen zait.



ARITZ MEDIA
SOPELA

Nik ez dut parte hartu, baina nire gurasoek bai; beraiek txapa jartzen dute. Askotan, ez zara kontziente berba egiten ari zaren pertsona horrek ere euskaraz dakiela, eta txapa eramateak hori aldatzen lagun dezakeela pentsatzen dut.

Biharko mundua euskaraz

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra,
badator **Euskaraldia!**



ander deuna
IKASTOLA

Biharko mundua
gaur eta hemen



Klaseak goizez zein arratsaldean eta astean hiru edo bi eguneko modulazioetan eskaintzen dituzte Leioako Lamia euskaltegian.

Euskara edozein mailatan eta erositasunez ikasteko aukera

U ribe Kostan, AEK-ko euskaltegiek eskaintzen duten formakuntza-zikloen artean, Leioako Lamia euskaltegia ohikoak baino modulazio laburragoak eskaintzeagatik bereizten da. Egunero klaseak jasotzen dituzten ikasleak dituzten arren, gainontzeko euskaltegietan ez bezala, taldeak astean birritan edo hirutan joaten dira klasera, astean lau edo sei orduko ikastaroak jasotzeko.

Gaur gaurkoz, astean hiru klaseko formatua da eskari gehien daukana, nahiz eta bi eguneko modulazioak eskatzen dituzten ikasleen kopurua nabarmena izaten jarraitzen duen. Hiru eguneko klaseetan ikasleek bi orduko klaseak izaten dituzte, guztira, astean sei ordu.

Moldagarritasun horrek aukera ematen die euskalduntze-prozesuan edo titulua atera gura duten ikasleei klaseen ordutegira hobeto moldatzeko. Horregatik, Leioako ikasleek gain, denbora kontuengatik modulazio laburragoak eskatzen dituzten eskualdeko hainbat ikasle doaz bertara.

Mailari dagokionez, Lamia euskaltegiak eskari guztietarako eskaintza dauka, beharrezko kasuetan, bakoitzari dagokion mailako titulua lortzeko azterketara bideratuta. Eskari gehien duten mailak B2 eta C1 azterketa prestatzeko eskolak dira, izan ere, horiek gaingritzeko formakuntza berezia eskaintzen dute. Halere, astean hiru eguneko klaseetan maila guztietako ikasleentzako aukera daukate: A2, B1, B2, C1...

Horretaz gain, autoikaskuntzan ari diren ikasleentzako formakuntza-eskaintza berezitua ere badute, bakoitzaren beharretara moldatutako material eta laguntzagaz.

Formakuntza hori AEK-k baliatzen duen berezko metodologia komunikatiboaren bermea dauka. Horretarako sortutako ikastunitate propioak eta kanpokoak diren hainbat material baliatzen dituzte, eta lau trebetasunetan ardatzen dira: entzumen, irakurmena, idazmena eta mintzamen; gramatikari ere leku bat uzten diote, gutxieneko zuzentasun batez ekoizteko.

Bukatzeko, gaur egun, Lamia euskaltegiak maila guztietako 100 ikasle inguru ditu, eta klaseak emateaz arduratzen diren zazpi irakasle daude.



**Leioako Lamia
AEK Euskaltegia**
Dr. Luis Bilbao Libano 8
48940, LEIOA

Telefona:
944 646 063

Email:
lamia@aek.eus

Ordutegia:
Astelehenetik barikura
09:00-14:00 / 17:00-20:00

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra Euskaraldia Uribe Kostan

Euskararen erabilera iraultzeko

Barrika

Azaroak 19, zapatua

Euskaraldiaren hasiera-ekitaldia

13:30 | Frontoian

Argazki kolektiboa eta Euskaraldiko produktuen zozketa. Txapak ere banatuko dituzte.

18:00 | Frontoian

Zuzterrak taldearen dantza-plaza eta bertaratuko direnentzako taloen banaketa.

Abenduak 3, zapatua

Ikuskizuna: Kaleak bizirik

18:00 | Udaletzeko plazan

Potx eta Lotx pailazoen emanaldia.

Berango

Azaroak 18, barikua

Familiantzako tailerrak

18:00 | Santa Ana kultur etxean

Etxeke taloa egiten ikasteko aukera.

Azaroak 19, zapatua

Erromeria: Trikizio

20:30 | Berangoko frontoian

Azaroak 20, domeka

Umeentzako antzerkia:

Munduari bira 80 egunetan

18:00 | Berangoko Antzokian

Azaroak 27, domeka

Umeentzako ekitaldia

12:00 | Santa Anako kultur etxean

Tailerrak, disko-festa: euskal dantzak, jolas tradizionalak, photocall...

Azaroak 27, domeka

Umeentzako antzerkia:

Maddi pirata

18:00 | Berangoko Antzokian

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Boz gorako irakurketa

Liburutegian. Astelehenetik barikura.

Erandio

Azaroak 18, barikua

Euskaraldiaren hasiera-ekitaldia

19:00 | Euskadi plazan (Erandiogoikoa)

Ekitaldiaren ondoren, txokolatada eta Burrunba elektrotzaranga egongo dira.

Azaroak 19, zapatua

Dantza-poteoa Aiko taldeagaz

13:00 | Altzagan

Jado kaletik abiatuta, kalez kale eta plazaz plaza arituko dira giroa alaitzen.

Azaroak 26, zapatua

Txirri, Mirri eta Txiribiton

11:30 | Altzagako merkatu zaharrean

Euskal Herriko pailazo famatuaren ikuskizuna. Gonbidapenak liburutegian.

Azaroak 27, domeka

Antzerkia: Mari eta gailera fabrika

11:30 | Altzagako merkatu zaharrean

Familia guztientzako antzerkia.

Abenduak 2, barikua

Euskaraldiaren amaiera-ekitaldia

18:00 | Josu Murueta plazan (Astrabudua)

Trabudu dantza-taldearen emanaldia, Zunba! ikuskizuna eta Gauargi erromeria.

Abenduak 3, zapatua

Kontzertua: Gozategi

19:30 | Altzagako merkatu zaharrean

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat jarduera prestatu dituzte Erandion.

Abenduak 11, domeka

Antzerkia: Alderray

19:00 | Altzagako merkatu zaharrean

Pertsonaien ehiztaria eta istorio kontalariaren antzezlan.

Getxo

Azaroak 18, barikua

Euskaraldiaren hasiera-ekitaldia

18:00 | San Nikolas plazan (Algorta)

Euskaldunon ahalduzte eskola irekia.

19:00 | San Nikolas plazan (Algorta)

Euskaraldiaren irekiera-ekitaldia eta kontzertua.

Gorliz

Azaroak 18, barikua



Kontzertua: Kantu bat gara

20:00 | Gorlizko kiroldegian

Jon Maiaren kontzertua. Sarrerak eskura daitezke kultur etxean.

JUAN MARI

Harategia

Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torreño, 2 48991 - ALGORTA

bai euskarari

15 egun

Eskualdeko hainbat tokitan Euskaraldiari harrera beroa egin ostean, Uribe Kostan euskaraz aritzeko hamaika jarduera prestatu dituzte ekimenak dirauen egunetarako.

Plentzia

Azaroak 17, eguna

Uribe Kostako Euskaraldiaren hasiera-ekitaldia

18:30 | Jai Alai frontoian

Gonbidatu eta emanaldi bereziak egongo dira: Getxoko Herri Kirol Taldearen ikuskizuna, Sopelako Arima eskolako dantzarien erakustaldia eta Zirkozaurre konpainiaren *Kobr3* antzezlan.

Azaroak 26, zapatua

Bertso-rap kontzertua: *Terapia*

21:00 | Ontziola plazan

Odei Barroso musikariaren kontzertua. Euria eginez gero, jarduerak eskolako patioan egingo dituzte.

Lemoiz

Azaroak 20, domeka

Kulturaldia Lemoizen

12:00 | Armintzan

Goizean, Txorotzaranga taldeak emanaldia eskainiko du herriko txikientzako.

18:00 | Armintzan

Taberna Ibiltaria taldearen emanaldia Armintzako kaleetan.

Sopela

Azaroak 27, domeka

Antzerkia:

Oihana. Sorginen bidea

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Umeentzako antzerkia.

Azaroak 27, domeka

Antzerkia: *Alderray*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Pertsonaien ehiztaria eta istorio kontalariaren antzezlan.

Abenduak 1, eguna

Bertso-jira musikatua

19:00 | Frontoiko tabernatik abiatuta

Alaia Martin eta Kerman Diaz bertsolariakaz Sopelako kaleetatik.

Abenduak 3, zapatua

Antzerkia: *Album*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Gazte eta nagusientzako antzerkia.

Urduliz

Azaroak 19, zapatua

Kulturaldia Urdulizen

12:00 | Torrebarribide kalean

Urdulizko gazteek *Uribe Kostan euskaraz blai* murala margotuko dute ospitalearen inguruan eta txapak banatuko dituzte.

Kontzertua: *Amak*

20:00 | Elortza ikastetxean

Sarrera librea izango da edukiera bete arte.

Azaroak 25, barikua

Gookapi ikuskizun interaktiboa

18:00 | Kultur etxean

Umeentzako ikuskizun interaktiboa teknologia berriakaz.

Zer



duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak
25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



araba alava
Berriak alavak alavak berriak



Hitzez Ekin**IRATXE MARTA LINARES** AEK-ko irakaslea

Apirilaren 11. Hedabide guztietako titularretan irakurri genuen: «Itzela izan da», «Euskararen uholdea Donostiara ailegatu da», «Berriro ere euskaldunok lortu dugu»... Abenduaren 4a, hedabide guztietako titularretan irakurriko dugu: «Inoiz egin den ariketa sozialik handiena egin dugu», «Itzela izan da», «Kaleak bete ditugu»...

Euskarak oraindik ere behar gaituelako, udaberrian HITZEKIN abiatu genuen KORRIKA eta udazkenean HITZEZ EKINGo diogu EUSKARALDIARI. Izan ere, aurreko edizioetan egin genuen bezala, ahobiziok eta belarriprestok gure konpromisoak bete, eta hamabost egunez herriak, auzoak eta ariguneak astinduko ditugu. Argi dago data zehatzen zaleak garela, eta horietan mugitzeko arazorik ez dugula izaten, baina ez da horretan geratu behar gure egitekoa. Hamabost egunez ekintzetara jauzi egiteko gai bagara, zergatik ahazten dugu gainontzeko 350 egunetan?

Aurtengo Euskaldia amaitutakoan, ariketa berria proposatuko dugu. Demagun egunero-egunero ospatzekoa izango dugula, 365 egunez Korrika biziko dugula, Euskaldian murgilduta egongo garela. Demagun euskara astelehenetik igandera, urtariletik abendura erabili beharko dugula. Nirekin parte hartu nahi?

Zuzen eta artez!**ARITZ LANDETA TERCEÑO** Getxoko Euskaldia

Azken asteetan, euskaldunon ahalduntze eskolan elkartu gara herriko zenbait euskal hiztun euskaldun gisara ahalduntzeko ditugun beharren inguruan hausnartzeko. Bertatik, etxera nentorren egun batean, Oskorri taldearen kantuak jarri nituen aurikularretan, nostalgiak kolpatuta edo.

Egun hartan pentsatu nuen, kantu haren erruz edo nentorren lekutik nentorrelako, helburu jakin batzuk ditugunean tresna egokien erabilera funtsezkoa dela. Euskaraz hitz egiteagatik eraso bat jasotzen dugunean, adibidez, indarrak galtzen ditugu sarri kontraerasoan, gogoraraziz euskaraz egitea gure eskubidea dela; autonomia estatutua aipatuko dute batzuek, Nafarroako erresumaren zilegitasun historikoa beste batzuek...

Nahikoa lan dugu berez egunez egun euskaraz bizitzeko saiakeran eta ez dugu behar eztabaida antzuek ere agor gaitzaten. Iltze bat sartzeko bihurkin bat, edo zorri bat garbitzeko ur pistola bat darabilenaren kontrara, baliatu dezagun gure subjektibotasuna uler dadin ez dugula bestelako arrazoirik behar. Euskara darabilgu nahi dugulako, gustuko dugulako. Horrela, eraso bat jasatean premisa hau jarraitu ahalko dugu: Zerbait egitekotan zuzen eta artez egiozu euskaraz irribarre batez!

Irakurrian **Munduari bira eman zion ontzia****Lehen mundu-biraren kronika eta gehiago**

Sarrionandiaren azken eleberrian ontziratuta, Elkanok munduari bira lehen aldiz eman zioneko istorioa ekarri dut lerrootara.

MATXALEN AMAS ETXEANDIA ►

Udako oporretarako aukeratu nuen liburua, komunikabideetan horren aurkezpenaz entzundakoak jakin-mina piztu baitzidan. «Lehen mundu-bira». Nola islatu halako kronika amonaren eta ilobaren arteko elkarrizketa batean? Irakurketa atsegina izango zelako susmoa hartu nion; ez horregatik arina. Halaber, bosgarren mendeurrenaren urteurrenean murgilduta eta lehorreratzearen eguna ate joka genuela, Magallaesen eta Elkanoren itsasaldiaz gehiago jakin nahi nuen. Eta bete-betean asmatu nuen.

Kontakizunean zehar, amona izango da informazioaren jabe eta kronikaren gidari. Ilo-

**Munduari bira eman zion ontzia**

Egilea: Joseba Sarrionandia
Argitaletxea: Pamiela
Urtea: 2022
Orrialde kopurua: 168

bak galderak egingo dizkio amonari; galderok, ordea, ez dira etenak izango kontakizunean, baizik eta hausnarketarako tarteak.

Konturatu gabe hartu nuen ilobaren rola. Balentria handia izan zen abentura hura, baina, zer dakigu tartean gertatutakoaz? Egungo mundu ikuskeratik, ulertuko genuke orduko hura? Nola liteke, bost mende geroago, oraindik ere orduko patroiak errepikatzea?

Galdera horiek eta beste asko eragin zizkidan, elkarrizketarako tarteak ekar lezaketena, solasaldi batean partekatze modukoak, eta, agian, abenduaren 15eko Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoan amonak berak erantzun liezazkigukeenak.

Beraz, badakizu, irakurle! Anima zaitez! Irakur ezazu Joseba Sarrionandiaren *Munduari bira eman zion ontzia* izeneko lana, eta etor zaitez abenduko solasaldira! Nora? Bada, Algortako Villamonteko kultur etxera, arrastiko 19:30etik aurrera. Ateak zabalik izango dituzu. ◀

KUTXABANK EUSKARALDIAREKIN HITZEZ EKITEKO GARAIA

Euskaraz egunero
2022ko azaroaren 18tik, abenduaren 2ra

HEMENDIK.





Kike Amonarriz Soziolinguista eta telebista-aurkezlea

«Baditugu baldintzak euskarak jauzia eman dezan»

Telebista-aurkezlea izateaz gain, Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria ere bada 2019tik. Euskal Herriko euskara elkarteak batzen dituen erakunde horren zereginetako bat da Euskaraldiaren koordinazio-lana egitea. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den ekimenari buruz eta euskararen egoerari buruz gehiago jakiteko beragaz egon da HIRUKA.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

Nolakoa izango da hirugarren Euskaraldia?

Lehenik eta behin, esango nuke izango dela normaltasun osoz aurrera eramán ahal izango dugun Euskaraldia. Aurrekoa pandemia bete-betean egin genuen, eta nahikoa arrakasta izan zen egin ahal izatea bera; beraz, alde horretatik, aurtengoa normaltasunez egin ahal izango dugu. Horretaz gain, nahiko genuke Euskaraldi masiboa izatea, eta sinistuta gaude horrela izango dela, Euskal Herri osoan egingo baita. Gainera, aurtengoa ariketan zentratuagoa egongo dela uste dut; azken finean, jendeak ulertu du Euskaraldia ez dela euskararen aldeko kanpaina bat, ez dela hizkuntzarekiko aldeketasuna erakusteko egitasmo bat, baizik eta norberak eta entitateek euskararen aldeko erabileran urratsak emateko ariketa soziala, hizkuntza-ohituretan aldaketa datzana, hain zuzen ere. Uste dut hori gero eta hobeto ari dela ulertzen, eta horrek eramango gaituela ariketan zentratuago dagoen Euskaraldi batera.

Berritasunik izango du aurtengo Euskaraldiak?

Lehen ediziotik bigarrenera urrats handi bat eman zen: norbanakoen Euskaraldia izatetik, norbanakoen eta entitateen Euskaraldia izatera pasatu zen; hor ariguneen kontzeptua sortu zen. Hala ere, pandemiagatik hainbat lekutan ezin izan ziren ezta martxan jarri ere. Hala ere, kontzeptua zabaldu zen eta

Jendeak ulertu du Euskaraldia ez dela euskararen aldeko kanpaina bat, ez dela hizkuntzarekiko aldeketasuna erakusteko egitasmo bat, baizik eta norberak eta entitateek euskararen aldeko erabileran urratsak emateko ariketa sozial bat.

hainbat lekutan nola edo hala egin zen, baina ez pentsatzen genuen moduan. Orduan, esango nuke aurtengo berritasuna ariketa bere osotasunean eta sakontasunean eramán ahal izatea izango dela. Gainera, aurtengo Euskaraldian ezagutarazi nahi dira aurreko edizioetan bai norbanako mailan, bai entitateen mailan ere izandako lorpenak eta jarritako erronkak ere. Hain zuzen ere, helburua izango da erakustea Euskaraldia euskararen erabileran urratsak ematea dela.

Zeintzuk izango dira goraipatuko dituzuen lorpen horiek?

Batetik, ikerketek erakusten digute Euskaraldian parte hartzen duten pertsonen ekimenak irauten duen bitartean euskararen erabileran jauzi handia ematen dutela; bestetik, aurreko edizioan ariguneen bitartez ikusi ahal izan genuen, ordura arte, euskararen erabileran baxuagoa zen hainbat lekutan hizkuntzari ateak zabaldu zizkio la eta urratsak eman zirela zentzu horretan. Horretaz gain, ikerketek adierazi digute denbora bat pasatzen denean Euskaraldian lortutako aldaketa batzuk mantentzen direla, baina beste batzuk erdararekiko inertiak jaten dituela. Nolanahi ere, Euskaraldia amaitu eta hortik hilabete batzuetara, egoera beti da ekimenaren aurretik baino hobea, horrek esan nahi du funtzionatzen duela kolpe bat bezala, eta erabileran maila bat igotzen duela,

baina Euskaraldi dezente beharko ditugula hizkuntzaren erabilera-ohituraren aldaketa horiek finkatzeko. Gero, eboluzioari dagokionez, aurreko Euskaraldian nekeza izan zen batzordeak martxan jartzea, eta horien funtzionamendua oso motela eta ahula izan zen, egoerak ere baldintzatuta. Aurten, nahiko genuke euskara bultzatzeko egitura antolatutik ez dagoen auzo eta herrietan sortzen diren euskara-batzorde horietatik ahalik eta gehienek iraun dezaten Euskaraldian sortu diren dinamika horiek mantentzeko, hain zuzen.

Uste duzu euskararen oztoporik nagusienetako bat hizkuntza eroso erabiltzeko eremuen gabezia izan daitekeela? Bai, eta nik uste dut Euskaraldiak ariguneen eta arnasmuneen bidez heldulekua eskaintzen diela era guztietako entitate eta erakundeetan lanean ari diren euskaltzaleei, beraien eragin-eremua ere zabaltzeko, egiten ari diren politikez hausnartzeko.

Nolakoa uste duzu izango dela laugarren Euskaraldia? Zaila da esaten. Aurretik, hirugarren Euskaraldi honek zer ematen duen aztertu beharko dugu, eta orduan hasiko gara laugarrenaren definizioan. Egia da Euskaraldiak *tempus* bat sortzen duela non euskara eramaten dugun agenda komunikatibo eta soziopolitikoaren erdigunera, eta horrek hausnartzeko eta urratsak emateko aukera eskaintzen digu, baina hori oraindik ere puska luze batean egiten jarraitu beharko dugu. Beraz, Euskaraldiaren edizio bakoitzean fokua non jarri erabakitzen joan beharko gara bere ezaugarri propioekin. Horretaz gain, nazioartean ere hainbat hizkuntza-komunitatek ere interes handia agertu dute Euskaraldiaren inguruan, eta litekeena da etorkizunean ere antzeko ekimenak ikustea Euskal Herri-tik kanpo ere. Hizkuntza oso indartsuek in-

Hedabideen betebeharra

«Esango nuke Euskal Herri mailan euskarazko eskaintza komunikatiboa oso ahula dela eta euskararen presentzia hedabide handietan urgentziaz handitu beharko litzatekeela. Jauziaz ari garenean, nabarmena da komunikabideetan euskararen presentzia zein urria den, eta hor aurrerapausoa berebizikoa dela uste dut. Komunikabideetatik harago, uste dut sare sozialetan era guztietako edukiak sortzen dituztenak ere behar ditugula, eta horiek ere bultzatu eta indartu beharko genituzkeela, badagoelako euskarazko Egunean Behin bezalako edukiak eskatzen dituen masa kritiko bat».

guratuta bizi gara, eta ez badago hautu kontziente bat maila politikoan, sozialetan eta indibidualean inertzia guztiek beti hizkuntza hegemonikoetara bultzatuko gaituzte. Horregatik uste dut horrelako ekimenak beharko ditugula etorkizunean ere.

Askok telebistatik ezagutzen zaituzte, baina Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria ere zara 2019tik. Nola uztartzen dituzu biak? Nik bizitza guztia bi hanken gainean egin dut: batetik, umorea eta telebista, eta, bestetik, euskalgintza eta soziolinguistika. Niretzako biak oso lotuta daude, eta batean ikasitakoa bestera eramaten saiatu naiz beti. Niretzat hori egitea oso esperientzia polita izan da, hasieran, askok esaten zutelako euskaraz ezin zitezkeela txisteak egin, baina guk erakutsi genuen posible zela.

Topagunea ezagutzen ez duen bati nola azalduko zenioke zer den? Euskal Herri osoan hedatuta dauden euskara elkartearen federazioa da. Batetik, elkarteak koordinatzen ditu, mugimendua indartu eta hedatu dadin, eta, bestetik, Topaguneak mugimendu sozial bat ere osatzen du ikuspegi nazionala duena eta Euskal Herri mailan ekimenak antolatzen dituen, eta horietatik ezagunena Euskaraldia da. Horretaz gain, hainbat alorretan egiten dugu lan euskalgintzaren alde; besteak beste, Tokikom tokiko hedabideak biltzen dituen erakundea ere bada Topagunearen parte. Laburbilduz, esan dezakegu euskararen erabileran ardatzen den mugimendu sozial bat dela, Euskal Herri osoan hedatuta dagoena.

Egia da idazkari moduan egingo duzun azken urtea izango dela? Bai, hala da. Due-la hiru urte hartu nuen lehendakaritza, eta laugarren bat ere erantsiko diot, baina uste dut era honetako erakundeetan garrantzitsua



AINGARA
BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

944 038 953
www.bordadosaingara.com
Aurrezki Kutxa, 18 48930 Erromo - GETXO

Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu



dela errotazio bat egotea, eta horretarako une egokia da. Hala ere, bertan lanean jarraituko dut.

Euskararen erabilerari buruzko azken datuek adierazi dute kale-erabilera mantendu dela, eta duela sei urtekoaren parekoa izaten jarraitzen duela. Nolako irakurketa egingen duzu zuk horren inguruan? Erabileran aldaketak oso astiro ematen dira. Hizkuntzen erabilera-ohiturak ez dira goizetik gauera eta masiboki aldatzen, mantsoak izaten dira. Horretaz gain, kontuan hartu behar da aurreko urteetan erabileraren jaitziera batetik gentozela, eta azken lau urteetan joera hori gelditu eta mantendu egin dela. Gehientsuenok behe-rakada bat espero genuen, azken lau urteotan

Hizkuntza hegemonikoak

«Hizkuntza oso indartsuek inguratuta bizi gara, eta ez badago hautu kontziente bat maila politikoan, sozialetan eta indibidualen, inertzia guztiek beti hizkuntza hegemonikoetara bultzatuko gaituzte»

pandemiak euskararengandik urrun bizi ziren familia eta haurrak erabat urrundu zituelako eta lotura ahul horiek ere erabat eten zitrelako. Horrek erakutsi digu, erabileran jauzi bat eman nahi badugu, hemen aldaketa sakon bat egin beharko dugula, bai hizkuntza politaketan, bai atxikimendu sozialean baita maila indibidual zein kolektiboan hartu beharreko erabakietan ere. Horregatik, ekimenak ezinbestekoak dira, baina gakoa izango da nola eman jauzi handi bat euskalgintza prozesuan. Topaguneak berak ere hurrengo urtean kongresu bat egingo du, horren inguruan hausnartzeko eta pentsatzeko hizkuntzaren biziberritzean jauzia nola eman, eta horretan zein izango den Topagunearen eta Euskaraldiaren funtzioa. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GNG tailerra
- Solaguren Jateetxea

📞 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696



Baskoak

Artikulu honetan **euskaldunak** ez ezik, **erdaldunak** ere hartu nahi nituzke aintzat; **euskal herritar**ak ez ezik, **diaspora**koak ere; **euskotarrak** ez ezik, **abertzaleak** ez direnak ere; **baskoi**en ondorengoak ez ezik, gainerako euskal **leinu**etakoek ere. Berba batean esanda: baskoak hartu nahi ditut ahotan! Nire helburua aurrez igartzeko modukoa da: Euskaraldia ate joka dugu eta ahobiziak ez ezik, belarriprestak eta irribiziak ere behar ditugu, denok osatzen baitugu euskararen herriko zoru linguistikoa. Baina zuzen ote nabili 'basko' hitza erabilia? Euskaltzaindiaren hiztegian ez da ageri berba hori. Orotarikoa, berriz, R.M. Azkueren ahotik esaten zaigu berba hori arrotz zaiola euskarari.

'Basko' hitzaren erabilera euskarari ez da atzo goizekoa, 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburu ezagunean ordurako Etxeparek erabili baitzuen (*Ceren bascoak baitira abil animos eta gentil...*). Gainera, euskaldunak ere aipatu zituen argitalpen berean (*Heuscaldunak mundu orotan preciatu ciraden...*). Hala ere, Azkueren ustez Etxeparek 'basko' hitzaren bidez iparraldekoak soilik izendatu nahi zituen. **Aieru** zalantzarikoa. Begiratu batean, behintzat, ematen du Etxeparek euskal jatorriko guztiei egin nahi ziela erreferentzia 'basko' hitza erabilia, euskara jakin zein ez (*Bascoac oroc preciatzen / Heuscara ez iaquin harren*). Eta euskaldunak, berriz, euskararen jabe zirenei (*Heuscaldun den guizon oroc alcha beça buruya / Eci hayen lengoaia içanen da floria*). 'Basko' hitzaren erroa, bestetik, Etxepare jaio baino askoz lehenagokoa dugu, dokumentaturiko formen argitan: *ba(r)scunes* eta *vasconum* (K.a. I. mendea), *Vasconia* (IV. mendea), *Wasconia/wascones* (VI. mendea), *Gascuña* (XI. mendea)...

Ez dakiguna da erro hori euskal jatorrikoa den ala ez. Baina zer ardura du horrek? Horretan ez da neurtzen euskaltasuna! (entzun Koldo Izagirreraren *Nire euskaltasuna* poema bikaina, Imanolek kantatutako bertsio zoragarrian).

Bertoko zein **mailegatu**, euskal komunitatearen partaide oro izendatzeko balio lezake 'basko' berbak. Erabil dezagun erruki barik, dagoeneko geure-geurea dugu eta! Horretara, egunen batean Euskal Telebistako *Vascos por el mundo* programa *Baskoak munduan* bilakatu da agian, inortxo ere baztertu barik, eta mundu osoan zabaldu gura genukeen hizkuntza ederrean gainera! Zeren baskook baikara abil, animoso eta jentil! ◀

*Nire euskaltasuna baso bat da,
eta ez du zuhaitz genealogikorik...*



Berba azoka

Euskaldun

Euskaraz dakiena, euskaraz mintzatzen dena.

Erdaldun

Erdaraz edo hizkuntza arrotzean mintzatzen dena, euskaraz ez dakiena.

Euskal herritar

Euskal Herriko herritarra.

Diaspora

Sorterria utzirik hainbat herrialdetan kokatu den jatorri bereko jendeak osatzen duen multzoa.

Euskotar

Euskadiko herritarra. Euskal abertzalea.

Abertzale

Aberria maite duena, aberriaren alde saiatzen edo borrokatzen dena.

Baskoi

Antzinatean Euskal Herriko lurraldean bizi izan zen herri bateko kidea.

Leinu

Familia bateko belaunaldien segida, familia bateko aurrekoen edo ondorengo multzoa.

Aieru

Azarnetan edo seinaleetan oinarritzen den ustea edo susmoa.

Mailegatu

Hizkuntza batek beste baten hitz edo osagai bat bereganatu (hemen partizipio burutua da, izenondo gisan erabilia).


Munduan hainbat hizkuntza daude
hizkuntza bat mundua da,
hitz bakarrean mundu bat dago
gure munduan euskara
hitz egitean bi mundu biltzen
dira bakar batetara
eta euskaraz hitz bakoitzean
mundura zabaltzen gara.



EUSKARAZ ERE,
NATURALITASUNEZ

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA



Hizki-zopa

Zopa honetan basoan naturalki aurkituko genituzkeen elementuak daude, irudian ere ageri dira eta 11 dira guztira.



"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskaldian bost arigune sortuko ditugu".
Nerea Ortiz

HITZEZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENA!
euskaldia.eus




2022ko AZAROAREN 18tik
ABENDUAREN 2ra

Dadoa

Bederatzi dado hauetatik bost irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak?

Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Engainagarriak

Bederatzi zati hauetatik bost engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak edo ez datoz bat irudi nagusiarekin.

URDULI Zen ere...
HITZEZ EKITEKO GARAIA DA



EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Agurtzane



Elena



Leo



www.getxoztararak.eus



hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Errigorako otzarak zure zain

«Euskarari puzka» goiburuagaz, berriro ere hemen dago Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko Errigoraren egitasmoa. Haien ekimenez, otzara-mota bi ditugu!



Zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 11a (domeka) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa

Azken etxea liburua

Txalaparta argitaletxearen eskumenez, Arantza Urretabizkaiaren eleberri eder hau zozkatuko dugu gure irakurle guztien artean. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 2a (barikua) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Karpin Faunara txangoa

Karrantza Haranean, naturaren erdian, panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak eta guanakoak zelatan daude zure zain. Zentro hori bisitatu gura duzu? Sarrera bikoitzak ditugu zuretzako!



Zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 2a (barikua) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



ZURE ENPRESAREN IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA INDARTU NAHI DUZU?

DISEINUA ETA MAKETAZIOA • ARGAZKIGINTZA • IKUSENTZUNEZKOAK • PUBLIZITATEA



lukiakomunikazioa@gmail.com



688 81 23 68



@lukia_komunikazio_zerbitzuak

ZURE KOMUNIKAZIO AGENTZIA EUSKARAZ

Eta orain... Argazkilaritza tailerrak!